

GALBAHEA

- **Meritxell Gene** musikari katalana Berrian honoko galderari erantzunez: *Batzuk harritu egingo dira soinu txikiarekin ikusi eta katalana zarela entzutean...* "Pirinioetako tresna tradizionala da, baina oso jende gutxi jotzen du. Niri asko ematen dit, eta oso gustuko dut. Euskal Herrian ez dut joko Katalunian bezala, katalanezko abestiak euskaldunengana hel daitezten saiatuko bainaiz".

(Berria, 2009-03-17)

- **Iker Goenaga:** "Azken diskoaren ostean batek galdetu zidan. "baina zer egin duzu?..." Zer egingo dut ba? Musika! Ni trikitilaria naiz eta nire soinu tresnarekin kantuak sortzen ditut. Ez dago besterik".

(Argia, 2009-04-02)

- **Iñaki Garmendia "Laja":** "Lehengo trikitia zaharra dezente mantendu dugu, eta gaur egunera arte ekarri dugu. Beste zenbaitzuek, Kepak [Junkera] eta Tapiak-eta aldakuntzak ekarri zituzten, eta hori ere beharrezkoa da. Beti iguala ezin liteke egin. Beti balsean dantza egitea bezala litzateke hori. Aldaketa behar da, eta denetarik. Gero jendeak erabakiko du zer gustatzen zaion".

(Berria, 2009-03-10)

- **Ines Osinaga (Gose):** "Gure helburua ez da tradizioarekin apurtzea. Guk diogu tradizioa ez dena plazerra dela: tradizioaz egiten ez diren gauzak plazerrez egiten dira. Gosek ez du soinua jotzen tradizioagatik, Gosek soinua jotzen du plazerragatik. Ez zaigu gustatzen trikitia bakarrik urtean bi egunetan jotzea, baserritarrez jantzen garenean. Ez dugu tradizioagatik egiten, plazerragatik baino, eta horregatik esaten dugu tradizioa ez dena plazerra dela. Eta tradizioa ondo dago hori nahi duenarentzat. Guk ez dugu hori apurtu gura".

(Aizu, 2009-05-01)

ZESUMA

KUPELA KUBAN

KUPELA taldea Kuban izan da joan den apirilean. Habanako Euskal Etxeak Aberri egunaren inguruan antolatutako ekitaldien baitan gonbidatu dute erromeria taldea.

Emanaldi nagusia Aberri Egunean izan zen, apirilaren 12an. Erromeria bakarrik ez, bertsolari-lanetan ere aritu zen Anjel Larrañaga, Ander Lizarralde eta Unai Muñoarekin batera. Kubako bi dezimista entzuteko parada ere izan zen saio berezi hartan.

GOSE KURDISTANEN

Arrasateko **Gose** taldeak Diyarbakirgo (Kurdistan - Turkia) 9. Artearen eta Kulturaren jaialdian hartuko du parte, datorren maiatzaren 30ean. Gose taldeak jaso zuen gonbidapena Diyarbakir Kùltür sanat Festivali-aren antolatzaileen eskutik. Diyarbakir-en (gehiengo kurdua duen lurralde turkiarreko hiri garrantzitsuena) ospatzen den jaialdi esanguratsu honek Kurdistango hainbat zonaldetako (Turkia, Iran, Siria...) ordezkariak biltzen ditu urtero. Iazko edizioan, esaterako, 100.000 lagun baino gehiago ziren bertan.

Gose izango da eszenatoki gainera igoko den talde ez-kurdu bakarra.

Jaialdi honetatik bueltan, Gose taldeak bere hirugarren lana osatuko duten kanta berriak grabatzeari ekingo dio burubelarri, datorren urriaren erdialdera izango ditugu entzungai abestiok.

ALTZA PORRU!

2009ko ekaina / 33.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

FABOZ 03 DISKOA, KALEAN



Faboz bildumaren **hirugarren alea** kalean da. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak duela bi urte abiatutako egitasmoari eutsita, **lau trikiti-bikote** elkartu ditu Faboz 03 diskoak.

Hego zein Ipar Euskal Herriko partaideak dituen azken lan honen, jotzeko molde eta kantu-era ezberdinak bildu ditu. Bilduma bereko aurreko bi aleetan bezala, bikote bakoitzak bosna pieza jota, **errepertorio zabal eta anitza** lortu da.

Hogei piezek osatzen dute diskoa:

- Julie eta Thierry
1. LUISA Fandangoa
 2. KORNELIO Arin-arina
 3. MUNDARRAIN Fandangoa
 4. MAITE DENA EZIN UKAN Kantua
 5. KAKOLA Martxa
- Koldo eta Esti
6. MARKOX Biribilketa
 7. GETXO Jota
 8. HERRIKO MUTILAK Porrusalda
 9. AI ZER POLITA Mexikanoa
 10. ANDRA LUR EMOILEA Balsa

- Mundiñano anaiak
11. ZURI NAFARROA-HILTZAILE BAT BEZALA- OH GU HEMEN Kalejira
 12. GONA GORRIA Fandangoa
 13. ARIN-ARINA
 14. ZIREN, GARA ETA IZANGO Trikitixa
 15. IRITSIKO DA EGUNA Balsa

- Lurdes eta Aitor Alkorta
16. BALSA
 17. ERREKALDEREN KONTUAK Trikitixa
 18. FOX-A
 19. PASODOBLEA
 20. SAGARNA Fandangoa

Grabaketa, nahasketa eta masterizazioa Hernaniko OH BROTHER estudioan egin dira 2009ko urtarrila eta otsailen, Iñigo Egia teknikariarekin. Diseinua Concetta Probanzak egin du.

FABOZ 03: AURKEZPEN ERROMERIA

Aurreko bi lanekin egin den moduan, diskoaren aurkezpen-erromeria antolatu da aurten ere. Faboz 03 diskoan bildutako hainbat pieza entzun eta dantzatzeko parada izango da erromeria honetan.

NON: Elosun
NOIZ: ekainaren 14an, igandez, arratsaldeko 18:00etatik aurrera
PARTAIDEAK: Lurdes eta Aitor Alkorta / Koldo eta Esti



SAKABIREN SOINUAK ERRE DIRA

Azpeitian, Faustino Azpiazu "Sakabi"-ren alargunaren etxean, sutea izan zen orain hilabete batzuk. Argindar sareko zirkuitulabur batek eragin zuen sua egongelan. Erabat kiskali zen etxeko egongela; besteak beste, **Sakabiren soinu guztiak eta argazki mordoxka bat erre** ziren. Sakabi zenaren soinuak alanbretan, burdin haritan, geratu ziren.

TRINTXERPEKO EGUN PASA

Trintxerpen, Pasaian, egun-pasa antolatu dute datorren ekainaren 6rako. Usurbildik Juan Tapiaren ikasleak eta Debatik Jon Ostolazarenak, Pasaiaokekin elkartuko dira.

Jai hau bigarrenkoz ospatuko da aurten. Iaz Donostiatik Oskar Estangaren ikasleak eta Txingudi-aldeetik Aunxa Trikitixa Eskolakoek parte hartu zuten.

NON: Trintxerpen, Pasaian

NOIZ: Ekainaren 6an, goizetik hasi eta eguerdian zehar

PARTAIDEAK: Usurbil, Deba eta Pasaiaiko eskolak

12:00tan eskolak elkartzea

12:30tan eskolen kalejira

14:00tan eskenatokian taldeen saioa

14:30tan Lunch-a

ITZIARKO ERROMERIA EGUNA

Antonio Buenetxea "Txankarta"ren omenez, maiatzaren 2an ospatu zen lehendabizikoz Itziarko Erromeria Eguna eta, izandako **arrakasta ikusita, datorren urtekoa prestatzen hasia** da dagoeneko antolakuntza taldea.



atariko, apirilaren 30ean, **hitzaldia** ospatu zuten Apaiz-Etxean Txankarta soinu-jolearen bueltan. Mahai inguruan, Iñaki Garmendia "Laja", Jexux Mujika eta Inazio Buenetxea (Txankartaren semea) elkartu ziren Jon Ostolazaren gidaritzapean.

Erromeria Egunean, eguraldia lagun zutela, Itziar inguruko **trikitilari zahar eta gazteak** bildu ziren, ondoren, erromerian aritu ziren soinu eta pandero joleekin batera. Hauxe gain, dultzaineroak, txistulariak eta joaldunak ere, jo eta su ibili ziren, eguna girotzen.

Bazkaritan 400 lagun inguru bildu ziren eta, arratsalde nahiz gaueko **erromeriatan, dantza gogotik** egin zuten inguratu zirenek. Festa luze joan zen; goizaldera arte.

DEBAGOIENENKO TRIKITIXA EGUNA

Eguraldi traketza izanagatik ere, giro bikainean ospatu zen joan den apirilaren 25ean, Antzuolan, Debagoieneko V. Trikitixa Eguna. Debagoieneko herri guztietako ikasleak ez ezik, Soraluze eta Zumarragako trikiti eskoletakoak ere bertan bildu ziren: 9 eskoletatik gerturatutako 300 neska-mutiko inguru.



Trikiti eskola guztiak parte hartu zuten eguerdiko ekitaldian, baita herriko zenbait trikitilari beteranok ere. Ondoren, omenaldi hunkigarria eskaini zioten Balentin Aperribairi, herriko trikitilari askoren maisu izan denari. Duela 25 urte, etxeko sukaldean, bere borondatez, panderoa irakatsiz hasi zenetik hona egindako lana eskertzeko modua izan zen.

Bazkarian 500 lagun inguru elkartu ziren eta festa-giro dotorea izan zen ondorengo erromeriatan. Soraluzek hartu du lekukoa datorren urterako.

URRETXU-ZUMARRAGAKO I. TRIKITI EGUNA

Maiatzeko 2. larunbatean, hilak 9, Urretxu-Zumarragako I. Trikiti Eguna ospatu zen bi herriotan. Arratsalde, Esteban Larrañaga, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakari ohia eta Arrate Irratiko esatari ohia omendu zen.

Goizeko eguraldi ona aprobetxatuz hasi ziren trikiti doinuak kaleak alaitzen. 11tarako elkartu ziren musika eskoletako ikasleak eta triki-bertso poteoko parte-hartzaileak. Denen artean giro ezin hobea jarri zuten kale eta tabernetan.

Ondoren, 100 bat lagun inguru elkartu ziren Zumarragako Balentiña Jatetxean bazkaritan. Bazkalostean ere, ez ziren falta izan trikiti doinuak.

Arratsaldeko 6tan, Urretxuko Labeaga aretoan zegoen eguneko zita garrantzitsuena. Hainbat trikitilari, Izer, Lutxurdio, Aitziber, Laja aita-semeak, Migel eta Mikel (Zumarragako Trikitixa), Gorka Azkarate eta Ane Ayerbe, Xabi Etxaniz eta Idurre Arriola, Gari eta Iñaki, Galdos, Epelde, Usula eta Joseba, Herriko dantza taldek, bertsolariak, eta abar luze batek beren saioa eskaini zuten eta ondoren, egin zitzaion oroigarri eta opariaren entregatzea omenduari, Esteban Larrañagari. Saioko une hunkigarriena, Estebanen alabak, Leirek, Aitor Zabaletak lagundurik, aurrakua dantzatu zueneko izan zen. Oroigarriak ematen, Urretxu eta Zumarragako alkateak, Iturbide, eta Urretxu-Zumarragako Trikitixa Elkartetik Edurne Ayerbe izan ziren.

Jaialdia amaitu ondoren, gaueko ordu txikietaraino jarraitu zuten trikitilariak taberna eta kaleak alaitzen. Laburbilduz, egun biribila pasa ahal izan zuen bertaratu zenak.

Egoitz Epelde



Disko berriak 20 HATZ PROIEKT Iñaki Plaza eta Ion Garmendia



eta Ion Garmendiak ibilbide luzea daramate Euskal Herriko musikatresnenekin. Hainbat diskotan jo dute (Berrogüetto, Ibon Koteron, Faltriqueira...) eta taldean, besteak beste, Kepa Junkerarekin arituak dira. Euskal soinutresnen inguruko kontzertu didaktikoak eta ikastaroak eskaini dituzte Euskal Herrian zehar.

GOIERRIKO TRIKITILARIAK

Goierriko Hitzaren 5. urteurrena eta Goierritarra aldizkariaren 20. urteurrena ospatzeko, bailarako hainbat trikitilari elkartuko dituen diskoa prestatzen ari dira. Urretxu, Zumarraga eta Legazpi barne, **Goierriko dozena bat bikotek** osatuko dute lana.

Festa-giroko piezak bilduko ditu batik bat diskoak; parte-hartzaileak, izan ere, festa, afari, kalejira edota poteotan aritzen direnak baitira. Trikitilarien festa-giro kutsua islatuko du, hortaz, diskoak.

Soinu joleekin batera, Goierriko bertsolariek ere izango dute beren lekua lan honetan: instrumentalak ez diren piezen **letra gehientsuenak, Goierriko bertsolariek sortutakoak** izango dira.

Azkarate estudioan grabatutako diskoa, udazkenean aurkeztuko dute, Hitzaren eta Goierritarraren urteurrenak ospatzeko ekitaldi berezian.

PARTE HAR EZAZU ALTZAPORRUN

Zuk ere gurekin parte hartzea nahi genuke. Trikitixaren inguruko edozein berri edo argibide eman nahi baduzu, jo Elkartera eta Altzaporrun emango dugu zure abisuaren berri. Gurekin harremanetan jartzeko, idatzi helbide honetara: trikitixa@trikitixa.net

ITURBIDE ETA ERROTARI OMENALDIA MARTITTEN

Maiatzaren 31an, igande arratsalde, Iturbide eta Errotari omenaldia egingo zaie Azkoitiko Martitte auzoan.

NON: Martitten, Azkoitian

NOIZ: Maiatzaren 31an, igandez, arratsaldeko 17:30tan

PARTAIDEAK: Zendoia eta Manolo Izer, Tapia eta Leturia, Epelde eta Lutxurdio, Baltzola anaiak, Ostolaza eta Unai Andonegi, Itzeder, Ioritz eta Joseba, Izer eta Alabier eta Gari eta Iñaki.

Euren lehen diskoari "20 hatz proiekt" izena jarri diote. Izena azken urtetan elkarren artean bildu dituzten musika esperientzien, lanen eta bidaien laburpena da.

Beren lanaren abiapuntuan, Euskal Herriko folkloreak erritmoen aberastasunari eman dioten garrantzia dago; folk hitza irauli eta, tradizioa, esperimendutik aztertu eta gauzatu dute. Horretarako erabiltzen dituzten artean daude, pvc-ko tubioghaxu gisa, trikitixa, alboka, txistua, egurrezko txalaparta zein prozesatuak edota plastikozko bidoiak.

Hainbat musikari izan dituzte diskoan lagun; baita Amaia Agirre letragile lanetan eta Cesar Ibarretxe grabaketa arduradun.

Honokoak izango dira parte hartzaileak:

- Elortza anaiak
- Gari eta Iñaki
- Elustondo anai-arrebak
- Joseba Iparragirre
- Xabi Arakama
- Olarte anaiak
- Eneko Dorronsoro eta Andoni Ezkerra
- Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin
- Maitane eta Aiora
- Lutxurdio eta Aitziber
- Edurne Iturbe
- Jaione Otegi
- Xapre, Furriela eta Izaro Garmendia

Alaitz Telletxea eta Eleuterio Jauregi 'Beloki'-k kantu berezi bat sortuko dute lan honetarako.

SANTIAGO BARAIAZARRA HIL DA

Santiago Baraiazarra soinu jole eta konpontzailea hil da, 96 urte zituela. Etxeko tradizioari segika esku lanetan abila, zurgin lanetan aritzen zen eta baita soinuak konpontzen ere. Gernikan jarri zuen denda eta, gaur egun, bere seme Kepak jarraitzen dio aitaren tradizioari. Goian bego!